EKHINE EIZAGIRRE

alde erantzira nabil

Alde erantzira nabil

Ekhine Eizagirre

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2016 Ekhine Eizagirre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2016ko martxoa
Edizio hau: 2016ko martxoa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

izan zirenei
amari
borrokalari feminista guztiei
izango direnei

HEGAN

gure libertatea
hari batetik zintzilik egon arren,
esku arrotzen menpe baino
nahiago kometak bezala
askatasun haizean hegan

NON

Ez galdetu non nagoen,
leku hau ez da-eta
mapetan erraz aurkitzen.
Ez galdetu non nagoen,
leku hau ez da-eta
inongo latitude eta altitudetan agertzen.
Ez galdetu non nagoen,
leku mugikorrean dantzan nabilenez
bilatu arren ez nauzue-eta bertan topatuko.

Leku honek badu
bere izena.
Izan liteke zelai zabal bat,
zuhaitz eta mendiz josia,
elur malutez estalia,
eguzki izpiz jantzia,
euriz bustia.
Izan liteke etxe erraldoi bat,
zementuz edo harriz edo
egur zaharrez eraikia.

Leku honek baditu
mila koloreko lau horma:
beroak, hotzak, ilunak, argiak.
Izan litzake mila errepide,
mila estrata txiki,
denda txikiak inguruan,
eta animaliak eta landareak.
Izan litzake, gorantz begira,
amaiezinak diruditen aldapa malkartsuak,
misterioz betetako bidezidorrak ilunpetan.

Ez galdetu non nagoen, berriz ere.
Hemen nago,
hotz izoztuko eta ur epeleko aberrian,
ez lurrean ez airean, soilik aske,
soilki askatasunean.

GAUHONTZ

elkarren kontra estuturik
karraskatzen diren hortzak

oharkabean beren kasa
estutzen diren ukabilak

sukarraldietan bezala
izerditzen zaizkigun haragiak

hontzenak bezala zabal
irekitzen zaizkigun begiak

gorputzaren mugimendu
autonomo urduriak

horiek eta beste hainbat dira
goizeko seiak bitarte irits daitekeen
ate kolpe bortitzaren kezkaz
bizi ditugun sintomak

GOI TENTSIOKO KABLEETAN - 1

Malabaristen moduan
oreka topatu nahian
goi tentsioko kableetan
dantzari gabiltzan txoriak gara.

Bihotza kiskaltzeraino maite ditugun
lagunen indarraz egiten dugu egunerokoan aurrera,
ez baita borrokarako grina zaharrik
borroka grina oraina denean.

Elkarren irribarreen besarkadetan
urtzen garen izozkiak gara,
elkarren indarren pausaleku,
tentsioak askatzeko elkarren sorbalda.

Zer gara ba gu:
hegan aske egin nahi duten txori errariak,
hegoak astinduz haize bolada traketsak
eragozten dituzten arrano biziak,

hegoak zabalduz herria besarkatzea
amets egiten duten ameslariak.

Eta hori lortu bitartean
ezinbestean jarraituko dugu
goi tentsioko kableetan dantzan,
ez baita borrokarako grina zaharrik
borroka grina eta pipermina
gu geu garenean.

ASTINDU HEGOAK

Hegoak astinduz gara,
erlauntzean, hotzaldi gogorrenetan epel.

Bizirik jarraitzeko gara,
lorez lore, basoz basoko bidaiari.

Bizirik irauteko gara
etxetik kanpo.

Lorez loreko bidaia
luzea da gurea,
txilar, labanda, ezkai...
eta etxera itzultzeko ezgai.

Hegoak astinduz gara,
erlauntzean, hotzaldi gogorrenetan epel.

Hegoak astinduz gara,
haizetan eta haitzetan, askatasun haize.

Mila ezten-lantzaz defendatzen dugu
gure herria. Ehunka hildakoz.

Bizirik irauteko astintzen ditugu hegoak,
bizirik irauteko gara etxetik kanpo,
hegoak astinduz irauten dugu herri
nahiz eta herritik kanpo bizi.

GOI TENTSIOKO KABLEETAN - 2

Txori kantuekin batera
esnatzen gara,
eurekin batera
egiten dugu hegan,
elektrikazko kable erraldoietan
jarduten dugu dantzan.

Gaua iristearekin batera
bueltatzen garen arte
sasiarteko gure habiara.

Zeru hauek dira
txorion hega-bide naturalak,
eta haizeen bulkadaz
ihes egiten dugu
ehiztarien sareetatik.

BAT-BATEAN

behin-behinean
bizi gara
behin batean
baina betikotuta
bat-batean
iraul daitekeen
betikotasun bitxian

ILUNEGI

Irudi zait gaurkoan
mundua ilunegi,
katastrofitis larri baten pean edo...
irudi zait gainean dela apokalipsia.

Gure etxeak jada
bankuen bazka dira,
gure lurrak
kapitalaren jabetzak,
haien dirutzak
gure poltsiko hutsak.

Auzolanean jasotako harriak
pilatu zaizkigu
norbanakoen bizkar gainean.

Diru usaina airean,
etsipen zaporea platerean,
zor kutsua dabil kalean.
Astun. Oldarkor. Likin.

Subjektu izateari utziz
zapaltzaileen objektu gara.
Zientzia-politika, erlijio-etika
biblia berria gurea.

Besterik gara,
ardi
edo ez gara.

Zoriontasun egarri,
antsietatez larri,
kapitalisten koktelak ditugu edari.

GPSak oinen ordezko gidari,
iPhoneak informazio emari,
kamerak segurtasun sari,
komunikabideak titereontzako hari.

Irudi zait gaurkoan
dena ilun dela.
Ametsek eskuetatik
irrist egiten didatela.
Gure jabetzak ez ezik

ametsak ere
desjabetu nahi dizkigutela.

LUZE-LABURREAN

denboraren distantzia laburra
distantziaren denbora luzea
amorrua
malenkonia
gorrotoa
ezintasuna
gosea
desgastea
tristura
antsietatea

hara errealitatea!

GAUR

300 bala airean
tiro 1 buruan
7 zerraldo

arrazakeria
beldurra
duintasuna
terrorismoa
zapalkuntza

gaur
baina
3 zakur
gutxiago

gaur
11 urteko gaztetxoa
eskola aurrean
jipoitu dutenetariko
3 gutxiago

zuria ez da
beltza inoiz
eta gaur ere zerua
gris ageri da

EZ ZARETE PASAKO

Francok hiltzerik
lortu ez zuen
gorria naiz.
Inkisizio guztiak
hegaldatu dituen
sorgina.
Euskara gogotik
darabilen
euskalduna.

Hildako guztien izenean
“ez dira pasako!”
gauero belarrira
xuxurlatzen dizuedan
horixe naiz.

BIDE EZEZAGUNEAN

Bide ezezagun hartan lehen agurra.
Aipatu ezineko herrietan gerritik helduta.
Parodia etengabean atzemangaitz.
Elkarren lurretan eta ezpain arrotzetan
egin genuen larrutan,
gureak ez ziren mapetan gerra.

Kale bazterreko puta lizunenen tankeran,
borroka prostituta ezin aipatuzko bidezidorretan.
Identitate performatuen aterpean,
intxaur oskolak bizkarrean egin genuen bizitza,
parodia etengabean —atzemangaitz—
babestuz askatasuna.
Burdinaren hotza gure azalaren betiereko maitale.

Aipatu ezineko jatetxe hartan
zerbitzatu ziguten zopa,
sasi metafora ezin hobea,
errezeta sekretua izan baita gure bizimodua.
Parodia etengabea,

bihotza eta bizitza hatz mamitan.

Aipatu ezineko herrian eskuak jasoz,
bide ezezagun hartan, azken agurra.

Amaitu da funtzioa.
Parodia krudela gure bizitza.

HUTSUNE

Ezaren ezereza
Mundu hau dut mespretxa
Egoneza
Presa
Itxaropen geza
Itotako ametsa
Malkoen babesa

Ezaren ezereza
Ihesa

ZULO TXIKIA

Zulo txikitik so,
paisaia berberean
galtzen zait begirada,
orain ilun, gero ateri.
Aspaldi joan zen elurra,
konturatzerako urtu.
Begien atzean gordetako malkoak
noizbait ziren idortu.

Zulo txikitik so,
nire begi bikientzat
paisaia aldakorraren
monotonia opari:
arnastu ezinezko mendia,
zeharkatu ezinezko errepideak,
iritsi ezinezko harrizko etxeak,
laztandu ezinezko liliak.

Zulo txikitik so,
denbora aurrera doan seinale,

monotonia aldakorra:
zakur arrotzen ibilgailu hotsa,
begi-ninien dardara,
horma arantzadunak
nire barrunbeak orrazten,
odola izozten,
ikusmira lausotzen.

Zulo txikitik so,
ilargiaren argia:
begiek arnas dezaketen sosegua
bizirik sentitzeko egia.

Zulo txikitik so,
zulo handian ez jausteko
arrazoiaren argia,
etorkizunerako zubia,
askatasunaren argazkia.

IGERI

azkenekoz izarapean
elkarri estu helduta
egon ginen hartan bezala
ken diezazkiogun
ordulariak elkarri
horrela ez dugu-eta
kontatu beharko
berriz elkar ikusteko
zenbat minutu eta egun
eta aste eta hilabete
eta urte falta diren

ABSENTZIEN ITSASOAN

Itsas karakoletako
hots errepikakorraren antzekoa da
absentzien itsasoa,
edo lau hormaren arteko
isilune tristea.

Hutsuneari dantzatutako
maitasun balada da
absentzien itsasoa,
egoera latzetan samurtu ezineko
une krudela.

Ezertarako eta denerako balio duten
tramankuluz inguratutako lekua da
absentzien itsasoa,
irudi exotiko ukiezinen
pantaila hotza.

Lagun eta sendi gosea da
absentzien itsasoa,
zoriontasun guztiz ezin asea.

ARRAKALAK

bizitzako zartako bakoitza ote
—tristura, kolpe, tentsio, haserre, beldur—

zartako bakoitzeko bizi-hatsa ote
—oihu, aiene, garrasi, intziri, marru—

azala lerro infinituz arrakalatuz
heriotzara zimurtzen gaituena?

GERO ARTE

—Ama!
Geroztik ikasi nuen
hutsunean igeri egiten,
oroitzapen goxoz inguratutako
putzuzuloetan.

Eta hala zoaz zu ere,
gero arte batez,
“noiz arte?” galdera samina
hutsunean hegaka utzita.

Zu ere
oroitzapen goxoz bildutako
hutsune bat izango zara.
Oroitzapenok laztantzean
oraindik bihotz taupadak
biderkatzen dizkidan hori.

ALEZ ALE

Bazoazte
alez ale,
bazoazte
nire barrenetik
ihesi, urrun.
Petaloz petalo
biluzten ari naiz
udan ere
hotz sentitzeraino.
Bizitzaren bidezidorretan
sarriegi dabilkit
Mateo txistuka.
Baina ez dut nahi
putzaldi gehiago,
nire inguruan
behar zaituztet-eta,
azaleko ileak legez
ni babesten.
Lili honen
zurtoinak adierazten du

esan nahi dizuedan guztia,
horrelaxe sentitzen bainaiz:
maitasun dosi txikiak
nigandik eten eta
apurka-apurka
aldenduko balira bezala.

HITZORDUAK

Iraganean mintzo gara,
galdera ikur bat delako etorkizuna.
Iraganean mintzo naiz,
bizitza osoan inguratu nauzuen guztiez.
Iraganean mintzo natzaizue,
nahiz eta bizi-bizirik zaudeten orainean.

Hitzordurik hitzordu
banabil ere, ez zaudete
neure buruko agendan.
Bihotzekoan, egunero
oroitzen zaituztedan arren.

Hitzordutik hitzordura
hainbat bider
galtzen zaituztet bidean,
hitzorduek ez dute-eta
ziurtasunik batere
klandestinitatean.

Iraganean mintzatuko zarete
zuek ere nitaz oroitzean.
Iraganean jardungo duzue
kafe bat hartzen ari naizen bitartean.

Hau ez baita urtebeterako bidaia sabatikoa,
bizitzako aukera eta bidezidor itsua baizik,
oraina bizitzen ehuneko ehunean.

—Orainak ez du guretzat hitzordurik...
—Eta etorkizunak?
—Zer da ba etorkizuna?
—Galdera ikur erraldoi bat
bizitzako bidegurutze bakoitzean.

AMETS

Hirekin amets egin dinat gaur.
Aske nengonan herrian.
Ondo-ondoan egon gaitun.

Denbora galduaren astuna
begietan dirdiraka genuela
begiratu haut eta esan dinat:

—Nola botatzen haudan faltan!

Eta energia oso bereziak inguratutako
besarkada estuan lotu gaitun
aspaldi ez bezala.

Esnatu naun.
Kantuan ari ditun txoriak 6:30ean.
Eta ametsetakoa orain
esna esan nahi dinat berriro:

—Nola botatzen haudan faltan!, Edur.

UKAN NAZAZU

Ukan nazazu
behar bai baina ez nagoenetan.
Bete ezin izan ditugun
gure bizitzako etenpuntuetan,
denboraren minutu luzeek
puzten duten parentesian
uki nazazu,
ukan nazazu.
Putzu gabeko oasi handi honetan
bila nazazu
eta ikusiko nauzu zelai idorrenak ere
ase ditzaketen oroitzapen goxoetan.

Ukan nazazu
behar bai baina ez nagoenetan.
Maitasunaren hariari jarraituz
aurkituko nauzu
etenpuntuak lerro zuzen bilakatzen dituzten
bihotz ttakun azkarretan.
Ukan nazazu

atzo, gaur eta biharko gauetan.
Bila nazazu hegan,
gaua argitzen duten eta
hainbeste maite ditugun ilargi beteetan,
distantzia sekulakoek ninirik nini
ahitzen dituzten izar iheskorretan.

Ez nagoenetan, behar nauzunetan,
hitz sorgindu hauen bidez
senti nazazu gertu.
Heldu gogoz gerritik
eta eramango zaitut erratz gainean
denbora eta urruntasuna
laburtzen diren unibertsora,
absentziak sutan errez
ametsak egia bihurtzen diren akelarrera.

Ukan, usain, laztan nazazu.
Senti nazazu, eta elkartuko gara
irri, xirri eta muxuen lurralde askean.

EZER EZ DA BERDIN

Bigarrenez
eten da zilbor hestea,
ez zara berriro jaio.
Eten da soka,
ez zara lurrera jausi.

Atzokoa bazara,
nolatan zaude gaur
hain desberdin?
hain triste?
hain hauskor?
Zergatik duzu
sabelean min?

Zilbor hestea
eten da berriz,
bere usainak eta
bere esentziak
inguratzen zaituzte soilik.

Gaur ez da atzo.
Amaren hatsa galduz geroztik
ezer ez da berdin.

SOKASALTOAN

Kariokak etxean
geratu ziren
egun hartan.

Kulero gabe
geratu nintzen
egun hartan.

Ipurdiko goxo batez
gero arte esanda
agurtu genuen elkar.

Egun hartan berriz ere
gainean generaman
gure ondasun urria.

Ondasunez hustuta
baina itxaropenez gainezka
berrekin genion bideari

garrantzitsuena bizkarrean hartuta:
borrokarako grina, umorea,
indarra, oroitzapen goxoak.

Muxu bat,
ipurdiko bat
eta gero arte.

Geroak bidean
guretzat denbora tartetxo bat
eskainiko digun konfiantzaz,

hemendik gutxi barru
egutegiko lauki baten hutsunea
elkarrekin beteko dugulakoan.

Kariokak etxean geratu ziren.
Gure oroitzapenak, aldiz,
nire bihotzeko apalean.

AMETS

bihotza
lur eremu zabalegia
jabe bakar bat izateko

GUK NAHI DUGUNA

Bestea besterik ez bezala
nahi gaituzue.

Zuen kate estuek
lurraren kontra ekarri dute
gure balantza,
zuen aldeak
zerua ukitu duen bitartean.

Gure kontura bizi zarete.
Gure kontura eraiki duzue
zeuen zerua, eta han goian
bizi omen den indar orojakile
gailenezin baten izenean
zapaltzen gaituzue.

Baina bagara
besteaz harago
gugan sinesten dugunak.
Bagara

diru gabe, aberats
arma gabe, indartsu
botere gabe, ahaldun.

Zuengatik gara bestea,
zuengatik feministak.
Zuengatik gara itzal,
zuengatik sorginak.

Itzaletik, irabazteko grinaz,
egingo dugu hegan
kateak su goritan urturik.
Hegan denok batera,
balantzaren alde gorenak
lurrean jar ditzan oinak.
Hegan denok batera,
bestea ez ezik
izan gaitezen
guk nahi duguna.

URRUN

Loak hartu du,
ez dadila esnatu.

Minbera dut gorputza.
Zergatik ezkondu nintzen?
Mozkor usaina airean, nazka!
Irakin dezadan agudo ura.
Noan isilik.
Ez dut inbuturik beharko:
belarritik garunera zuzen,
asmatuko dut!

Urak bidea egingo du
zure garuneraino.
Garuna egosiko dizut,
eta orduan
zurekin batera
ahaztuko ditut
kolpeak
    mehatxuak

bortxaketak
irainak...
eta hamaika urteko edozein haurrek nola
amets berriak egin ahalko ditut,
zu gabe, zugandik urrun, azkenean.

GURE GORPUTZEN BIRKONKISTAN

Kapitalismo patriarkalaren
eraikuntza sozialak gara.

Ez haatik amaitutako produktuak.
Ez haatik eskultura moldakaitzak.
Ez haatik behe-laino zurrunak.

Etenik gabe
berregokitzen
    birkontzientziatzen
        berreraikitzen
            dihardugun
subjektuak gara.

Horregatik gorputz ahaldunak.
Horregatik kontzientzia arriskutsuak.
Horregatik gure gorputzen birkonkistan
dihardugun nomada feministak.

PAISAIA MOREAK AMETS

Labanda usaineko paisaietan
oroitzen zaituztet, osasuntsu,
gure herrian sustraituta,
izara koloretsu baten gisara.

Zuen pausoek
nire bihotz taupadetan
egiten dute oihartzun:
doinu bortitz lasaia.

Larre more zabalotan
suma dezaket gure sua,
erein dugun haziaren garra.
Labandaren esentzian
borrokaren usaina.

Paisaia moreak amets,
saretzen ari gara oihala.
Muga-hesirik gabeko sentimenduan
izara beraren epelean
eskuz esku josten oraina.

PORNO-POEMA GOURMAND BAT

Ohe ttipian balantzan,
zango zabalik dantzan.
Hatza zure mihia bailitzan
nire leizean dabil saltsan.

Gora, behera, aurrera, atzera
100 km orduko martxan.
Uzta oparoa gaurkoan
nire gorputzeko baratzan.

Ezpain eta bularrak,
izerdi eta dardarak...
azkartzen ari zaizkit taupadak,
zorabiatzen nauten plazer danbadak.

Gozamenarekin hasi solasa
ezin berehala eskegi.
Gorputzak diost lizunki:
segi ezan, segi, segi!

Hasperenetan azkartu da arnasa,
sobredosi demasa,
hatzetatik naiz ukabilera pasa,
hau sentsazio basa!

Ipurdia bururdi gainean,
jiraka eskua alu barnean
zukua atera nahiean
laranjei bezala goizean.

Zure aurpegia nire gogoan,
bihotza punpa biziagoan,
hasi naiz oihuka ero moduan
eta ez dut ezer utzi barruan.

Esne tantak izterrean,
putzu bustia maindirean.
Ederra gaupasa gaurkoa
plazeraren ilunabarrean.

ZER NAIZ?

emagaldu
nahi dut

galdu

ni berri bat
kausitzeko

AUTODEFENTSA

Erantzi denok eta
trapu zaharrak jantzi.
Musu eta koska
letaginak zorroztu.

Armak beti eskuan
kuleroak buruan.
Garaipen grina altzoan
irri maltzurra ahoan.

Mandragora botila
trago banaz hustu.
Kortxoak erreta
aurpegiak margotu.

Suaren bueltan dantzan
ozen sorginon irrintzia:
iritsi da kontra-ehiza aldia
errautsetatik esnatu da piztia!

Sasi guztien gainetik
egin zeruari tiro.
Has dezagun festa!:
    ahizpa kide maitale
        zuri beltz langabe
            sorgin puta alujale
autodefentsa komandoz
bete plaza eta kale.

Hemen da kontra-ehiza aldia
kaleetan barrena dabil piztia.
Ofentsen kontrako defentsan
damurik ez despentsan.

Gora autodefentsa!

PUDOREA

hainbeste
tenue correcte
ikasgai
etika
pudore
moral

eta
zuen jainkoa
hortxe ageri duzue
titi bistan
txaparro batekin
alde guztietan

nonbait
ahaztu egin zaizue
non edan zenuten
lehen tragoa
nondik eta nola
zineten jaio

arraio!

VIKI

Ez jantzi panpoxik
ezta ere poltsikoan sosik
baina egunero zaude pozik.

Begi ertzak irrist,
aurpegia irriz,
eta ni zure egarriz.

Eskatu didazu bisou,
nik galde: nor zara zu?
Lotsarazi nauzu, aizu!

Mandarina zaporeko soa,
sua bezain gartsu, gozoa.
Esnatu didazu otsoa.

Arropek kolpean irrist,
elkarri begira irriz,
egidazu koska berriz.

Bi su artean bisou,
zu eta ni, ni eta zu.
Nolako plazera, aizu!

Ez dugu behar arroparik,
are gutxiago sosik
bizia bizitzeko pozik.

Gurutza iezadazu soa,
gazia bilakatu gozoa,
espetxetik behingoz
aska dezagun gogoa.

PLAZER TANTAK

gozamena
besterik ez naiz

zirraraz
bildutako gorputza

plazer tantazko
putzua

epela
umela

tximeletak
dantzan dituen
sabela

GILTZA

Hartu giltza:
ireki zure barrua,
jalgi zure errena,
zure alde erratua.
Bidaiatu lubakiaren bestaldera,
beste horrenbeste garenon lurraldera.

Hartu giltza:
alda dezagun erretratua,
grisa bilaka koloretsua,
hezurra haragitsua,
matxoa maritxua,
Txanogorritxu otsoa,
laranja erdia osoa.

Hartu giltza:
eragin sarrailari,
irauli zure barrua,
hautsi inposatua,
dasta debekatua,

izan bekatua.

Normala norma bada
hobe izan nomada.
Arauekiko
ez etiko
antipatiko
gorputz atipiko
anatomiko
anotomiko
atomiko
despistatua.

ZEURE GILTZEN JABE

mila kirten eta zulo
mila giltza
mila ate
mila kate
barne gerrate eta debate

hatz eta behatz
ukabil oin mingain
klitori bulargain
aho ipurdi uzki
alu sudur belarri
denak plazer iturri

zenbat frikzio
hainbat desio eta sentsazio
loaldi sakoneneko zure
fantasia eta fikzio

mila giltza mila ate
mila kirten eta zulo

zure gorputz geologikoan
mila muga mila murru
zuk noiz gaindituko aiduru

ireki ate denak
aldatu eskemak
zorroztu zentzumenak
eta galdetu behingoz
zer eskatzen dizun senak

HIREKIN

Hire azal gainean
egin nahi dinat antzerkia.
Argizaria bilakatu,
suz urtu,
hire gorputz gainera
tantaka amildu.
Plazerez lehertzeraino,
berriz jaiotzeraino.
Bero, ero...
ez din axola
erretzen bagaitun.

Hirekin eta hiri begira
egin nahi dinat larrutan.
Hire aho bustian
txupitoak edanez
hire zuloetan barrena
nahi dinat mozkortu.
Alkohola izerditzeraino,
behatzak erretzeraino.

Ero, bero...
ez din axola
kiskaltzen bagaitun.

TOPA!

bizitzaren
zapore garratza
itotzeraino
eztarriratzen zaigunean

elkartuko gara infernuan
eta jarraituko dugu
amildegi ertzean
tekila edaten

NIRE PREKARIA KUTTUNA

Hator nire eskura, Courgette,
hator laztana.
Ur goxotan
nahi haut epeldu.
Goxoki estali,
gomaz saihestu,
koban babestu.
Hire gainean
egingo dinat dantza,
hiri helduta estu.
Nik markatuko dinat pausoa,
nik erritmoa,
hago geldi, ez mugitu!
Hi haut baratzeko poza,
emadan plazera,
nire prekaria kuttuna.
Bilaka dezagun
une hau urrezko,
amortiza hazadan,
nire prekaria kuttuna,

gaur aluz sentiz
bihar koskaz irentsiz.
Hator nire barrura,
nire prekaria kuttuna.
Gaur ni naun hire baratza
bihar hi nire bazka.

ZUEKIN - 1

Zuekin
zeru garaietaraino
hegan igo naiteke
erortzeko beldurrik gabe.

Zuekin
lurpeko infernuetaraino
amildu naiteke
erretzeko beldurrik gabe.

ZUEKIN - 2

Zuekin magia
su artifizialen gisan
lehertzen da zeruan.
Labanda usaineko
larreak ereiten ditugu
purpurina morezko euriz.
Laia gainean hegan,
buru idorrak iraultzen,
lur gogorrak biguntzen.

Zuekin magia
egitate bat da
egungo munduan.
Ostadar koloreko
zubiak margotzen ditugu
hatz puntekin.
Laia gainean hegan,
buru gogorrak biguntzen,
lur idorrak iraultzen.

IZATEKOTAN

Ez naiz inorena.
Ez dut inor
aukeratu nahi.
Ez dut inork
ni hautatzerik nahi.

Izatekotan,
maite nauten eta
maite ditudan
guztiena naiz.

Horregatik naiz
bereziki
neure-neurea.

PUTA

Izan nahi dut puta.
Hankartea zabaldu munduari!
Zupa zein zurrupa,
plazera bezero nagusi,
bizia igaro ilargiari uluka!

HARREMANTZE FASEAK

a ametsetan
b baba dariola
d dudak
e erabakiak (hartu behar, bizitza horixe da-eta...)
f finikito

FAMILIA INPOSATUAK

Eten da arnasa,
ez zaude jada.
Eten dut soka,
ez naiz lurrera jausi.

Atzokoa banaiz,
nolatan nago gaur
hain desberdin?
hain lasai?
hain arin?
Zergatik ez dut
sabelean min?

Zuek gabe ere
badudalako etxerik,
maite eta zaintzen nauenik.
Josten ikasi nuenetik
ez dut bakarrik
geratzeko beldurrik.

Gaur ez da atzo.
Aukera egin geroztik
dena da desberdin:
errazago, justuago.

Ez dut nahi errukirik,
zurikeriarik, konpromisorik.
Ez dut behar familia inposaturik.

FAMILIA NUKLEARRAK

Familia nuklearrik?

Ez, eskerrik asko.

FEMINISMOARI

Zu zaitut
lau hormaren artean morfina
arintzen didana egonezina

jakin-min atsegina
itxaropen bitamina
egin dezadan aitzina

zu zaitut
bozkario eta samina
bizitzako pipermina

lagun ukaezina
adiskide nekaezina
maitale aseezina

zu zaitut
kontraesanak xuxurlatzen
dizkidan sorgina

SOKATIRA

armairutik atera
eta lokutorioan
bahitu gaitizten, maite

baina gure gogoek
elkar hartu eta
hegan egin diten, aske

EAU DE PARIS

Zementura itsasten nau
Paris gris honek.
Ezpain artetik
mingaina hondoratzen
eztarria itotzeraino.
Likatsu itsasten zait
larrura urdinabarra.
Zabor kiratseko
kolonia merkez
bustitzen nau,
arratoi eta katu kakez
igurzten dit aurpegia.
Inolaz ere ezin
lohitasunetik askatu.

Limurtu nahian
inguratzen nau
atzapar luzeez,
plegatu asmoz
urratzen dit azala

azkazal zorrotzez.
Zulo orotarik
jo nahi nau
Paris gris honek,
zulo bakoitza
ahulgune eta alugune
uste izanda.
Zementuzko langarrez
irentsi nahi nau Parisek.
Eta hala nabil egunero
grisetik erauzi beharrez.

ZIRIMIRI

Ezinari eta inpotentziari
eskuburdinez lotuta,
mendekuzko ur sakonetan
pixkanaka hondoratzen doan
aingura astuna da gurea.

Besterik bilakatzen ari gara
ustekabean eta ezinbestean,
irakiten genituen desirak
ezerezean lurrundu ahala.

Ur azalean kulunkan
geratu zaizkigu ametsak, maitea,
eta zirimiri triste batek
laztantzen ditu nostalgiaz.

GELDI

Zer axola du
elurrak estali badu
patioko lurzorua?
Ez da denbora
eteteko arriskurik
denbora ez doan lekuan.

Egunak joan, egunak etorri,
euria joan, elurra etorri,
egutegian urratutako laukiak
bart zurbil, bihar zuri.

Denbora zementura
itsatsi denez geroztik
Parisko estolda-zuloan
eguna eta gaua besterik
ezin ditut bereizi.

GUTIZIA

Arrakalen bila nabil grisean.
Erauzi ditzadan zementutik
txokolate apur bat eta
Afrikako ilunabarrak.
Erauzi ispilutik
zure musu bat edo
keinu soil bat.
Erauzi alutik
hasperen eta irrintziak.
Erauzi gutunetik
zuk izkiriatutako zirriak,
animozko eta amodiozko basoerdiak.
Arrakalen bila nabil grisean.
Bada zirrikiturik oraino
zementuzko itsasoaren erdian.

SEGUNDO BAKOITZA

Erloju orratzen
kontrako norantzan
egingo dinagu iraultza.
Ez atzerantz, beste alderantz.
Denborak zentzurik gal ez dezan
hitzordu klandestinoak
adostuko ditinagu
amets periferikoetan.
Eta gure gorputzek bat egitean,
azalak azala ukitzean,
begiradak lapurtuko zizkionagu
segundo bakoitzari:
minutuei musuak,
orduari zentzua.
Denbora plazerez
irauliko dinagu.

OROIMEN LURRINA

Hordagoa bota zionagu
murru arteko moralari.
Erauzi dinagu plazera zementutik,
mendeku zulo hau putetxetu,
bordela burdel bilakatu,
ezleku gris eta ainube hau
glamour pixka batez apaindu.

Minutuak lizunduz,
distantziaren gazia gozatuz,
ordu pasea eztiki lurrinduz,
horma zakarren kontra berotu eta
euria hasi aurretik elkar busti dinagu
Hatsak, behatzak, laztanak nahastu ahala
haizearen hozkirriak eraman ditin berriro.

Baina gaurko arrastirian samurragoak ditun
hemen antsia eta bakardadea,
hik urrun alde egin ondoren ere
konpainia egiten geratu zaidan
hire usaina.

UMORE BELTZA

Gupida diogu
hormez haraindiko munduari:
lan bila dabilen laguna,
lanerako bizi den bestea,
umeak artatzeko astirik ez duen emakumea.

Pozten gaitu
lanik egin behar ez izateak,
idazteko denbora izateak,
ama ez izateak,
aspertzeko astia topatzeak.

Harrotzen gara
tonaka pena pilatzen den urtegian
irauten dugulako ur azalean.
Harritzen gara
penaz ito beharrean diren hainbesteren gogoak
gora jasotzeko dugun kemenaz.

Antzerki hutsa da hau guztia:

umore beltza,
ironia iraultzailea,
sistemarekiko satira.
Kristauek nahi luketen bezala
geure buruez gupida ez gaitezen
—leziorik ez, eskerrik asko—
zuen zibilizazioaz trufatzen gara.
Ez dugu maite gupida, pena eta erruen bazka.

3 ALLÉE DES THUYAS
F-94261

Elkartasun zigilua, gutun bat.
Gutun bat, maitasun keinua.

Helmuga, postontziez harago, sakonago.
Hitzak begien atzean irristatzen direla,
animoak bizkar muinean pilatzen.

Gutun bat,
ez ahazteko nondik gatozen,
ezezaguna ezagutzeko,
ezaguna zaintzeko.

Gutun bat,
gutun-azalak edukia nola,
herriaren besarkada
azalean sentitzeko.

Elkartasun keinua, gutun bat.
Gutun bat, maitasun zigilua.

KAPUT!

espetxean bere buruaz beste egin duenari
espetxeak bizia kendu dionari

Putz egin eta malkoa dario begi ertzetik.
Begi gorri, minbera, puztu...
puxiken tankeran lehertzeko zori.

Malko urez gainezka, askatasun egarri.
Lau hormaren artean eri,
nahiz eta leihoz bestalde zerua den ateri.

Begi gorri, minbera, puztu...
malko putzu.
Zorigaitzez betetako puxika
nola hustu.
Lepoa laztantzen dizun labana
nola kamustu.

Begi gorri, minbera, puztu...
malko gorriz mina bilakatuz putzu,
zeure kasa, azkenean, kaput! esan duzu.

EZ GU TENTATU

gona motzak
aldizkarietako gorputz biluziak
debekatu nahi dizkigute
    arropa gardenak
    ostegun gauetako pornoa
    debekatu nahi dizkigute
liburu erotikoak
sexua eta plazera
debekatu nahi dizkigute

baina gaua iritsitakoan
strip-teasean erantziko gara
eta gorputz garden biluzietan
egikarituko dugu gure porno propioa
    ziegako hormez haraindiko fantasietan
    eskuz mingainez eta igurtziz
    idatziko ditugu istorio erotiko ausartenak
    gure gorputz sexudunetan

Pierre de Lancreren ondorengo

inkisidore hauek nahita ere
ezin izango digute bahitu
gure gorputzen gozamenezko plazera
    sutan erretako
    sorgin guztien gorazarrez
    botako dugu aluetatik kea

DUINTASUNAZ

biluz itzazue
zuen gorputzak
miatu ahoak
bizkarrak
oin azpiak
ileak
bularrak
miatu zuen uniformeak
galtzak
nikiak
kuleroak
eta abarrak

ea bilatzearen bilatzez
aurkitzen duzuen
lan hau egiteko
nonbait
noizbait
galdu zenuten duintasuna
bortxatzaile miserableak!

GELA BAT NORBERARENA

gorrotoa tatuatuta daramat begi ninietan
ahanzturan galduta daude begirada samurrak

ito egiten nau errepresioaren reality show honek
aztoratu behatxulo eta klakaden neurrigabekeriak

triku itxurako katu amorratuak bezala
ezin diet beste era batera so egin uniformeei

gorrotoa ez da konpainia ona ezleku honetan
ahanztura ez da solaskide aproposa bahitegian

eraikiko dut gela propio bat zulo honen barruan
laztan nazazuen begiradez eta irribarreez

malkoz itsasoratuko dut gorrotoa eta
samurtasunari egingo diot txokoa

metro karratua
gutxienez

ZIEGAKO OHEAN

eskuin eskua luzatu
eta nire atzamarrek
horma hotzarekin egin dute topo

ezker eskua luzatu
eta nire atzamarrek
hutsune ertzarekin egin dute topo

eskuin eskua ezker eskura gerturatu
ezker eskua eskuin eskura gerturatu
eta nire atzamarrek
elkarrekin egin dute topo

bi eskuak elkarri oratuta
gauak epel hartu du lo

HIGANAINO

Eta bat-batean
ez zagon hormarik,
erori egin ditun.

Barroteak urtu,
sareak harizko bilakatu,
txarrantxek arantzak galdu,
uniforme urdinak desagertu.

Hegan egiten ikasteko
agindu zidan norbaitek.
Eta nik gauari
hegoak eskatuta,
hark eman.

Erloju orratzak ero,
helizeak bailiran.
Haiekin aireratu naun.

Zuzen egin dinat

higanainoko bidea.
Bizkarretik besarkatu
eta orduan orratzak
ziplo izoztu ditun.

Ilargiaren laguntzarik gabe,
maitasunaren sugarrekin
argitu dinagu gaua.

Eta halaxe geratuko gaitun luze,
luze, maitea...
hik behar beste,
malko mingotsek
itsasorainoko bidea egin artean
gutxienez.

MUSU-TRUKE

ez dago
desira hau
askatzeko
ekuazio posiblerik

JIRA ETA BIRA

Gozoa isuri dinat
kulero gorrira.

Ez iezadan berriz begira,
izen gabeko desira.
Ez dinat antzematerik nahi
kontrabandozko su artifizialei
ene begietatik ihesi darien distira.

Beroa hedatu zaidan
gorputz guztira.

Ez iezadan atzera begira,
nahi besterik ez dudan desira.
Kontzientzia eragozpena
giltzariz jantzita zabilkinat
ziega zuloan jira eta bira.

GOIZ GORRI, ARRATS EURI

hire ezpainen samurra
zetorkidan akordura
eguna esnatzear den
goiz gorri honetan

inkontzienteak kosk egin zidan
ezpainetako haragian
ebaki lizun hori ageri zainan
zoko horretan bertan

AMETS BUSTIAK

Desira bustiak pilatzen ditut azal azpian.
Eta hantxe geratzen dira gehienetan,
ezin izerdituta, arnas faltan itota.
Inoiz autobusik pasatuko ez den
geltoki bakartiren batean,
pasio eroen aiduru, sexu grinez oihuka.

Ezinaren guduak akitu nau gaurkoan.
Etsi dut! Haserretu egin naiz
neure buruarekin, zurekin,
epailearekin eta munduarekin.

Desiratu dut,
aukera txikiren bat denean,
asalda nazala gogoak,
hegalda nazala haizeak
eta eraman nazala urrutira,
lau horma zikinon artean
ez nadin plazer faltaz maskaldu.

ZURE AZALEAN IGERI

Musukatu nahi ditut
zigarroek horitutako
zure hortz bihurriak.
Miaztu zure ezpain azpiak,
marrubiak bezain gorriak.
Iritsi nahi dut besarkadaz
zure gerri zabalera.
Zimur eta bihurguneetan barna
nahi zaitut gozatu,
ardo on baten gisa
tragoz trago dastatu.

Urperatu nahi dut ahoa
zure haragi samurrean,
kosk egin ipurmasailean.
Besapeko ileak laztanduz
nahi zaitut behatu.
Zure izerdi usainak
sorgintzen nauela
belarrira xuxurlatu,

duda oro ahoz aho xukatu.
Nire begietara zein ederra zaren
lau haizetara oihukatu.

Edertasuna klixe zorrotzegiz
patentatu duen jendarte honi
zure azalean igeri eginez
nahi diot aurrea hartu.

EKLIPSE GAUA

eguzkiak
ilargia

besarkatu du
bart arratsean

nire gogoak
zure gorputza

EGARRIZ

Poltsa laukidunean pilatuta
inoiz jaso gabeko mimo gozoak.
Orrialdeetan itsatsita
inoiz jazo gabeko laztan amultsuak,
banpiro hozkadak, miazka urtsuak.
Hitz lizunak ezin askaturik
azkazalez urratzen ditut:
hitz lodi, etzan, borobil, fin, ñimiño...
Denak niri begitara so,
irakurriz xurgatzen ditut
mantso-mantso azpiak bustitzeraino.
Bihotza epel, larrua hotz, mimo egarriz.
Hotzikarak sortzen dituzten hitz beroak,
itsasaldeko bits gozoak, olatuen gisa
urak ekarri ahala urrundutakoak,
ezin aserik guztiz nire desira eta asmoak.

DISTANTZIA

nire ezpain
zartatuetan
distantziak
arrakala adina
amildegi egin ditu
zure ezpainen
samurrera iristeko

HIRE BITSETAN

Nahi baino gutxiago ibili naun hire lurretan,
nahi baino gutxiago galdu hire erliebeetan,
azal baino paper gehiago ditinat laztandu.
Ikusi baino gehiago haut irudikatu.
Esna baino hobeto sentitu haut begiak itxita,
oroitzapen bideetan hire azalera bidaiatuz.

Irakurriz entzun haut,
berben arkitekturaz ezagutu.
Hire mintzoarekin urtu naun,
hire hitzekin samurtu.
Lerro idatzien artean murgildu naun
eta hauetan barrena hire sakonera heldu.

Hitzen edertasun larriak baina
sarritan nain ikaratu.
Neure buruari galdetzen zionat
ez ote dudan hire mintzoa
hodei bitsekin nahastu,
hiperbole baten erdian

ez ote naizen katramilatu,
fikziotik gehiago duen
idatzizketan engaiatu.

AMONA MARIRI

nik ere maite ditut txoriak, amona,
baina kaioletatik urrun,
aske zeru zabalean

Sentitzen zaitut
bi zilbor hesteen arteko korapilo luzean.
Sentitzen zaitut urrunean nahiz hurbilean.
Oroitzen zaitut
tigre irudidun manta marroiaz estalirik
etzanda izarren babespean.
Oroitzen zaitut
negu hotzean izerdi patsetan bizikleta gorrian
egunsenti bezperako karriketan.
Begirada hunkibera begi zimurretan,
esperientziaren altxorra ahots kordetan.

Sentitzen zaitut
nire masailetan itsatsitako
zure ezpainetako karmin arrastoetan.
Begirada urdurietan,
esku nekaezinetan,

lan gogorrenetan,
une latzetan estututako ukabiletan.
Ulertzen zaitut hizkuntza arrotzean,
hobeki etxeko hitz goxoetan.
Irudikatzen zaitut
bihotz erraldoi baten gisa.

Maite zaitut, aske.
Txoriak jostari dabiltza
leihoaz bestaldean.

ELUR MALUTAK

Neguak harrapatuko nau.
Eta zu
elur maluta baten antzera
jausiko zara nire magalera.
Eta ni
elur maluten leuntasunez
pausatuko naiz zure ezpainetan.

Eguzkiaren gozoak bezala
urtuko dituzu nire bular gainak.
Eta negu aro hau epeldu egingo da
desiraren beroaz zure besoetan.

Neguak harrapatuko nau.
Eta zuk
haize zorrotzaren antzera
gorrituko dizkidazu masailak.
Eta nik
izoztutako beldurrak
urtuko ditut zure besoetan.

Haur jolasetako elur bolak bezala
jaurtiko ditut duda-mudak.
Eta negu aro hau epelduko dugu
elkarren sutondoko garretan.

NOR GARA?

agur bakoitzean
aurkitzen gara
eta
adio bakoitzean
ahazten zaigu
nor garen

adiorik ez
laster arte